

DIRU-SARRERAK

Gure lehen diru-sarrera bazkideok ipiniko dugun aportazioa izango da. Bost partaide gara eta bakoitzak 2000€ ipiniz 10000€ eskuratuko ditugu. Horrez gain, Mariok lokal bat duenez, bertan irekiko dugu denda. Diru honen bidez gure enpresa martxan jartzeko lehen pausoa emango dugu. Horrez gain, [Tolosaldea Garatzen](#) agentziarekin kontaktuan jarriko gara, enpresa berria garenez, diru laguntzak eman diezazkigun.



Gure enpresan diru-sarrerak lortzeko modu nagusia aktiboen salmenta izango da. Izan ere, gure aktiboa gozoki ekologikoak dira, osasuna zaindu nahi duten pertsonentzat zuzenduak. Produktuek prezio finkoa izango dute, eta hau ezaugarrien arabera prezioa izango da, hau da, produktuaren kopuruaren edo kalitatearen arabera. Aktiboaren salmentaren bidez %80eko diru-sarrera lortuko dugu.

Bestalde, publizitatearen bidez ere lortuko dugu dirua. Hasiera batean diru kopuru handia izango ez dugunez, beste enpresei publizitatea eginez lortuko dugu gehiago. Noski, enpresak gure alorrarekin zerikusia dutenak izango dira. Modu honekin, %20eko diru-sarrera lortuko dugu. Kirolaren munduan ere parte hartuko dugunez, Ternuarekin kolaboratuko dugu publizitatea egiteko garaian. Eta, horrez gain kirolari profesionalak eta sare sozialetan aktibo daudenekin ere lan egingo dugu publizitatea egiteko garaian, izan ere, garrantzitsua da kirolari hauek euren sare sozialetan gure produktuen berri ematea, kolaboratzea. Beraz, kirolari batzuk aukeratuko ditugu gure enpresaren enbajadore moduan.



5 urtetik gorako bezeroentzat zuzenduriko gozokiak:

GOXOKI MOTA:	PREZIOA:	EKOIZPENA: (hilabetero)	SARRERA:
Marrubizko gozoki poltsa:	1.99€	100	199€
Masustazko gozoki poltsa:	1.99€	100	199€
Kiwizko gozoki poltsa:	2.10€	100	210€
Limoizko gozoki poltsa:	2.10€	100	210€
Sagarrezko gozoki poltsa:	2.10€	100	210€
Mota guztietako gozoki poltsa:	2.50€	150	250€
GUZTIRA:			1278€

Kirolari profesionalentzat zuzenduriko gozokiak:

GOXOKI MOTA:	PREZIOA:	EKOIZPENA: (hilabeteko)	SARRERA:
10 goxokietako poltsa	3€	100	300€
20 goxokietako poltsa	3.50€	100	350€
30 goxokietako poltsa	4€	100	400€
GUZTIRA:			1050€